

Gonzalez: «Terrorismoaren kontrako borrokan fase hau gogorra izango da»

Tomas de la Quadra ministroa izan zen funtzionariaren hiletetan

Felipe Gonzalez, Espainiako Gobernuako presidentea Sevillako atentatua izan zuen aipagai atzo, Luxenbourgen Europako Kontseiluaren bilera baten buruan. «Terrorismoaren kontrako borrokan fase hau bereziki gogorra izango da» esan zuen Gonzalez presidentea.

LUXENBOURG / SEVILLA

Felipe Gonzalezek Japoniako bidaiari ETari buruz egin zituen adierazpenen ildotik mintzatu zen atzo Luxenburgon. Baina orduan esandakoari beste elementu berri bat gehitu zion, honako onarpena: «Ez dut gustuko iragargarpenak egitea, baina terrorismoaren kontrako borrokan fase hau bereziki gogorra izango da». Baieztapen honi beste hau gehitu zion ondoren: «Dena dela, esan beharra dut terroristak ez ditugula lasai utziko dauden tokian egonda, urrun ala gertu».

Felipe Gonzalez esanetan, «terroristak etsipenak jota daude eta, baita, zergatik ez esan, esperantzarik gabe ere».

Felipe Gonzalezek, Japoniako bidaiari, Moscuco aireportuan esandakoari heldu zion: «esperantza guztia utzi behar dute, ez daukate markorik eta ez diegu inolako bazterrik utziko».

Tomas de la Quadra, Espainiako Justizia ministroak bestalde, euskal preso politikoko sakabanaketa politikak jarraituko duela esan zuen atzo, «eraginkorra dela erakutsi duela». Sevilla-1 gartzelan herenegun izan zen atentatua hildako Manuel

Perez Ortega funtzionariaren hiletan izan zen Justizia ministroa. Sevilla-2 gartzelako funtzionarioek bestalde, euskal preso politikoko ez ditzatela elkarrekin bildu eskatu zuten atzo.

SEVILLAN HILDAKOEN HILETAK

Sevillako beste zenbait agintari ere izan ziren hiletan, hildakoaren familiarteko eta lagun ugariarekin batera. Horien artean, Manuel Chaves, Andaluziako Juntako lehendakaria, Alejandro Rojas Marcos, Sevillako alkatea eta Alfonso Garrido, Gobernuako ordezkaria. Olivares herrian lurperatu zuten atzo goizean Perez Ortega funtzionaria.

Espainiako gartzelatan segurtasun neurri gehiago hartzeaz ez zuen ezer zehaztu Justizia ministroak. Atentatua nola izan zen aztertzen ari direla lehenik, neurri gehiago beharrezko diren ala ez erabakitzeko esan zuen.

Bestalde, bomba paketearen leherketa izan zen unean Sevilla-1 gartzelan dauden sei euskal preso politi-

koak patioan zeudela esan zuen, beste zenbait iturrik presoak beren zeldetara lehenago joan zirela ziurtatu duten arren. Preso hauek Sevilla-2ra eraman zituzten eta atzo gauean, bertan pilatutako hamazazpi euskal presoak gartzelaz aldatu zituzten, funtzionarioen iturriek aditzera eman zuten. Gobernu ordezkariak ez du informazio hori baieztatu.

Atentatu berean hil zen Jesus Sanchez Lozano preso ere atzo lurperatu zuten Sevillan. Berrogei lagunek hartu zuten parte hiletan, baina ez zen bertan ordezkari ofizialik izan.

Espainiako gartzelako funtzionarioek eta baita preso ugari ere bost minutuko isilunea egin zuten atzo, ostiral gauen Sevilla-1 gartzelan izan zen atentatua gaitzesteko.

Gartzelako UGT, CCOO, CSIF eta ELA sindikatuek bost minutuko geldiduna egitera deitu zuten atzo eguerdirako eta USO eta ACAIT sindikatuek ere bat egin zuten deialdiarekin.



Sevilla-1 gartzelako atentatua hil zen funtzionaria atzo lurperatu zuten. EFE


Elkoro: «EAJk PSOEn neurriko politika egin dezala diputazioan utziko du EAK»

DONOSTIA

Jose Luis Elkoro Herri Batasunako hautagaiaren ustez, EAren ezeztako erantzunak Gipuzkoako Diputazioan EAJk PSOEn neurriko politika eramatea ahalbideratu behar du. Osteguneko egindako adierazpenetan HBkoek Gipuzkoako diputatu nagusiaren aukeraketaren aurrean EAKoekin akordioa lortuko zutela uste zuten.

HBk proposatu duen akordioa EAK onartu ez duela eta, Jose Luis Elkoro egin dituen adierazpenetan «Eusko Alkartasunaren ezeztoko garbi erakusten du Ajuriaeneako Paktua sinatu zutenetik lotuta daudela» esan du. Elkoro esanetan, «EA PSOEn morroi bihurtu da» eta «indarkeriari buruz sozialistek diotena errepikatzen dute».

HBko Diputazioarako hautagaiak dioenez, «EAK jakin behar luke herri guztietako giza eskubideen oinarria autodeterminazioa dela eta Estatuen indarkeria salatu».



Jose Luis Elkoro.

Elkoro aitatu zituen baita ere, tortura, GALen hilketa eta presoak jasotzen duten presoia. «Zergatik dago EA zapaldua dauden indarkeriaren aurka eta ez gure herriari subiranotasuna ukatzen dioten erakundeen aurka?» Pakearen alde eginen dutela lan esan du Elkoro eta hori lortzeko bide bakarra negoziatzea, Argeleko izpiritua errekuperatzea dela adierazi du. «EAK bakea bilatzen badu bide hau hartu beharko du eta alde batera utzi beharko ditu morroiak eta alderdi estatalistekin dituen loturak».

tzea dela adierazi du. «EAK bakea bilatzen badu bide hau hartu beharko du eta alde batera utzi beharko ditu morroiak eta alderdi estatalistekin dituen loturak».

EA-HB KONTAKTUEI BURUZ

Eusko Alkartasunarekin izan dituzten kontaktuei buruzko azalpen batzuk eman zituen aditzera atzo Herri Batasunak. Alderdi honen ustez, bi indar politikoen artean «giro arraroa sortu eta guk eskaini dugun proposamenaren atentzioa desbideratu nahi izan da» kontaktu horiei buruz zabaldu den informazioarekin.

HBk agiri baten bidez atzo azaldu zuenez, EAKo kide batek proposamen bat igorri zion Mahai Nazionalako kide bati «hirugarren pertsona baten bidez». HBk dioenez, ofizialtasuna eskatu zioten EARI.

«EARI eskatu zitzaion kontaktu batean, alderdi honek HBri esan zion bere exekutibaren aldetik ez zegoela inolako proposamenik» eman du aditzera Herri Batasunak.

Gure lana, gure Herriaren alde

E4

Trabajam por nuest Pueblo

eusko alkartasuna



Udal programa aurkeztu eta paktuak aztertu zituen Donostiako EAK. C.VILLAGRAN

Albistur: «Denbora abertzaleen alde dagoela esatea iruzurra da»

P.U. / DONOSTIA

Xabier Albistur Donostiako alkate ohiak bere alderdian oposizioan aurrera eraman nahi duen udal programa aurkeztu zuen atzo, eta paktu osteko egoeraren azterketa egitean, «denbora abertzaleen alde dagoela esatea iruzurra da» adierazi zuen, EAJk zabaldu ohi duen mezuari aurre eginez.

Albistur ustez, EAJk PSOEn hitzarmena egitea «bere hegemonia nahiarri» erantzuten dio, eta hitzarmen hori justifikatzeko buruzagi jeltzaleek ematen dituzten argudioak ez dira benetazkoak. EAJk Europaren etorkizunean jartzen duen konfidantza azpimarra daiteke. EA-Jren dionaren kontra, «denbora ez dago abertzaleekin», esan zuen Albistur. «Denborak nazionalismoaren alde lan egiten duela esatea iruzurra da, faltsua da, Europa ez doa hortik», gehitu zuen.

Kroazia eta Esloveniaren adibidea izan zuen aipagai EAKo kideak.

«Argi adierazi diete Europako Elkarrekin hamabiek beren laguntza ahazteko proiektu abertzaleekin jarraitzen baldin badute», gogoratu zuen Albistur.

Donostiako alkate ohiaren ustez, EAJk abertzaleekin hausteko aukera egin du, «hauteskundeetan lortu ezin duen hegemonia eskuratzeko».

Albistur EAJri leporatu zion «indar espainolista sendotzen laguntzea». «Mugak gaitzitu dira, jakinaren gainean boterea PSOE eta PPri eman egin zaie», gehitu zuen Albistur.

ARZALLUZ ETA BENEGAS MADRILEN

Inazio Oliverik hitza hartu zuenean, EAJren kontra zion «denbora ez dago abertzaleekin», esan zuen Albistur. «Nazionalismoa momentu zailean dago, ahultasun ideologikoa dagoelako: EAJ PSOEn menpe egotea oso larria da, politika propioa eta mezu indartsua zabaltzea eragozten duelako», adierazi zuen Iñaxio Oliverik.

Galdos, Murua eta Elkoro dira Gipuzkoarako hiru diputatugaiak

DONOSTIA

Eusko Alkartasuna izan da presa gutxienez izan duen alderdia, Gipuzkoako Diputazioara hautagaia aurkezteko orduan, atzo bertan aurkeztu bait zuen Imanol Murua, epea agortzeko ordu laurdena falta zelarik.

Azken lau urteotan Gipuzkoako diputatu nagusi izan denekin batera, beste bi hautagai aurkeztu dira. Euzko Alderdi Jeltzaleak Eli Galdos aurkeztu zuen hilaren 26an, PSE-PSOEn gobernua akordio batera heldu ondoren. Herri Batasunak herenegun arratsaldean aurkeztu zuen bere diputatugaiak, Jose Luis Elkoro.

Diputazioa eskuratzeko aukera gehienak Galdosek dituela dirudien arren, horrek ez dauka hautaketa ziurtatuta, guztira hogeitabat boto baino ez ditu eta (hamabi EAJrenak eta bederatziko PSOEnak).

Imanol Murua derrigorrez behar zituen Herri Batasunaren hamabi botoak, bere kargua mantendu ahal izateko, baina, antzandenez, ez ditu horiek jasoko. HB Muruaren aldeko botoa emateko prest azaldu zen, baldin eta EAK zenbait baldintza onartzen bazituen —Iruztun-Andoain autobidearen lanak gipuzkoar zatian geldiaraztea, besteak beste—. EAK, ordea, ezeztoko eman zion herenegun HBren eskaintzari, «biolentziaren arazoak HBtik aldentzen gaituela» argudiatuz.

Ondorioz, pentsatzekoa da HBk Elkoro emango diola botoa. Ikustear dago oraindik Euskadiko Ezkerako bost batzarkideek eta PPko beste biek egingo dutena.

Gipuzkoako diputatu nagusiaren hautaketa uztailaren 2an izango da, Batzar Nagusiek Ordiziako Udalean egingo duten osoko bilkuran.